

SANTA AGEDA KOPLAK

Dios te salve, ongi etorri
Gabon Jainkoak diela
Legearekin kunpli dezagun
Santa Ageda bezperan.

Makilarekin lurrean joaz
zuek esnatzera gatoz
euskaldun aspaldiko ohiturak
geureganatzeko asmoz
ez gara aspertzera etorri
gaude kantatzeko gogoz
hor ertzean etzaitez gelditu
hona kantatzera zatoz.

Zorion etxe hontako denoi
oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz
ezta ere oinetakoz,
baina eztarriz sano gabiltza,
ta kanta nahi degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa Maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna,
haren laguntzaz bete gentzake
egun hontako jarduna.

Orixe Ikastola daukagu
Donostiko Alde Zaharrear,
euskaldun jatorrizko ohiturak
zabalduz ingurunean.
Gaurko honetan abesten gabiltz
Agate deuna bezperan,
zeu ere, horrela nahi badezu,
has zaitetz nahi dezunean.